

## EUSKAHALDUN BERRIA, ZORIONAK!!!

### 1.- Zergatik hasi zinen euskara ikasten?

Euskaldun berri askok bezala, lana eta seme-alabak izan ziren arrazoi nagusiak. Bilbokoa izan arren, euskara ez nekien eta, gainera, kanpoan bizi izan naiz urte askoz. Duela 11 urte, Donostiara itzuli nintzen eta euskara ikasten hasi nintzen. Argi nuen hemen bizitzeko seme-alabak eta hiruok elebidunak izan behar garela.

### 2.- Zerk lagundu zizun ikasten prozesua?

Laguntza handia eta arlo askotan izan dut. Alde batetik, administrazioan euskara zabaltzeko indarrean dauden neurriak baliatu ahal ditut: diru-laguntzak, denbora libre... Beste aldetik, ikastolako euskaldun giroa oso lagungarria izan da. Izan ere, ez familian, ez lanean, ez lagunen artean, ez dut euskaldun ingurunerik.

### 3.- Zer irabazi duzu euskaraz jakinda?

Asetze pertsonala izan dela eta poz-pozik sentiarazi didala esango nuke. Bestalde, seme-alabek ikastolan ikasten dutena hobeto uletzen dut, eta etxeko lanetan sortzen diren zalantzak argitzeko gauza naiz. Lanari dagokionez, oraindik ez dut eskatzen didaten hizkuntza eskakizuna lortu, baina bidean nago eta lehenago edo beranduago lortuko dut, ziur.

### 4.- Zer aholkatu zenioke ikasi nahi edo zalantzan dagoen norbaiti?

Zerotik hasten direnei esango nioke hizkuntza ez da hain zaila. Egia da gramatika ez dela erraza, baina oinarrizkoa ikasita dena oso logikoa da. Eta hitz egiterakoan, lotsa alde batera uzteko.



Pilar Guraya, Ikastolako ama

